VILLA TARLAK — INTXAURRONDO 22

D MAILA





Eduardo Lagarde, 1930eko eraberritzea

Deskribapena

1930. urtea baino lehen eraikitako hiriko txaleta. Urte horretan oso-osorik eraberritu zen fatxaden konposizioari zein forjatuen altuerari dagokienean. Oinplanoko traza eta oin kopurua baino ez ziren errespetatu, Eduardo Lagarderen proiektua jarraituz. Eraikinak oinplano angeluzuzeneko hiru maila ditu. Atondoa eta eskailera nagusia dauden espazio handi baten bitartez banatzen da. Lehen oinean egitura bera errepikatzen da. Behe oinean etxebizitzako espazio publikoenak daude, hegoalderantz orientatuak, bolumen nagusira atxikitako pieza batez osaturiko galeria baten bitartez. Harlangaitz horma entokatuz eraikitako fatxadak era erregularrean ordenaturiko baoen bitartez osaturik daude, sarrera nabarmentzen da bertako azpadurak landuta daudelako. Apaindura soila duela, eraikin honek, Mandiola – Txiki (18. zb.) txaletarekin batera, multzo garrantzitsu bat osatzen du, kalearen eta lursailen eraketari dagokionean.

Babes erregimena.

1.- Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

2.- Berariazko erregimena.
- A. Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: ez.
- B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; apaingarri entokatuak.
- C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez.